



Data: 2023/06/30

EPE2022. EGONKORTZEKO SALBUESPENEZKO PROZESUA

HAUTATUAK ETA EUSKARAREN HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAREN BETEKIZUNA EGIAZTATZEA

Hautatutako behin betiko pertsonen zerrendan eskaeran alegatutako hizkuntza-eskakizunaren akreditazioa EAeko Hezkuntza Sailean jasota ez duten pertsonak agertzen dira (I. Eranskina argitaratzen da, pertsonen zerrendarekin). Kasu horretan, hautatutakoen behin betiko zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik hasita 20 egun naturaleko epean, alegatutako hizkuntza-eskakizuna dutela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko dute. Aurkezten ez badute, karrerako funtzionario izendatua izateko eskubide guztiak galduko dituzte.

Bestalde, hautatutako pertsonen behin betiko zerrendan martxoaren 9ko 47/1993 Dekretuan, uztailaren 23ko 182/2002 Dekretuan edo abuztuaren 30eko 190/2011 Dekretuan aurreikusitako salbuespen iragankorreko kasuetan dauden pertsonak ageri dira, deialdiaren 2.1.f) oinarrian aurreikusitakoaren arabera (II. Eranskina argitaratzen da, pertsonen zerrendarekin). Pertsona horiek 3 urteko epea izango dute, karrerako funtzionario gisa lanpostuaz jabetzen direnetik, dagokien hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko; beraz, karrerako funtzionario izendatzeko, hizkuntza-eskakizunaren baldintza betetzen dutela egiaztatu beharko dute adierazitako epean; hori egiaztatzen ez badute, ondoriorik gabe geratuko dira adierazitako izendapenak.